


ZER
ALDIZKARIA

400n. zenbakia
2014 URTARRILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



**Lourdes eta Paulo´ren
Urrezko ezteguak 1963 – 2013
eta txangolaritasunezko saria
Praga, Budapest ta Biena´tik zear I.**



**LANDAJUELA,
Anton, XII. atala**

Zorion eta urte barri on

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, XII.



Berrogetabost

Eztakit zein gaba zan, baña berrogetabost azur, mami ta azalezko, biotz, arnasa ta ari-madun gizon ziran bigaramon goizean ilteko batu ta pilotu ebezanak, gosez ta ago-zabal ziran zuloak janarituteko gizon-aragiz egunsentiko argiak gabeko iñontza lurrundu ta ezereztu baño len.

Ateak erdian eukan orratz-burualako zulotik begira nengoan zeintzuk ziran, eta adizkide maiteen bat arteko ete zan. Guztiak ezin nebazan ikusi, baña batzuk bai oster, buruak makur, oñak inderga ta gorputza ikaraz ebenak. Bai ta, burua gora, paparra aurrera, irriparez arpegia ta ibilkera txairoz jua ziranak be ezkon-ezteguetan ikusten doguzan lakoak.

Gu, baña, 10gn gelako 7 lagunok, eta batez bere ni, dardar, bizkar-azurretik otzikara gora-beraka ta lokietatik izerdi-tantak mara-mara nabaitzen nebazala, deiaren zai.

45 onein artean ba ziran Patxikiloren alderdian izandako gudariak, ixil-mixilka igez egin eta Euzkadiren alde jokaten etorri eta jokatu ebenak. Oneik eukan orban eta oben berbera neukan neugaz.

Mendi batetik bestera igez egindakoa nintzan 1936gko dagonillaren 19gn gabea, Er-laiz deritxon mendian, Irun eta Endarlazako erdian, Ego-Euskalerrian gabaren estalpeak lagundurik. Diñot barriro be, igez egiña nintzan txapelgorriak atzean itxirik, sasi-otarreetan barrenak urratutik, izerdi patsetan,

izkillua gerturik besoan, ogi-kuskur bi sakel dindilizkan, ortzi izartsua goian eta troka lantz oinpean nebalarik. Biozkadaren barrenak egin eustan deiaren erantzuna agertu, besterik esan izan nik egin nebana, gogoz eta egi-tan agertu nebana.

Egin neban aldaketa, baña, arerioaren uste makurrean, Jaungoikuaren amar aginduak betean eta bat-batean austu ta oinpean ostikotutea baño oben eta uts egite lantsa gabeagoa zan, eta, onek estututen nindun lau alderdietatik. Baña eguzkiaren izpietatik bastertuta neukien jauntxo indartsuak ez-takite nire lenaren barririk, eta onek gaizkatu nau oraingoz.

45 gizon oneik batu, eroan eta lana bukatuta izan zalakotan, arri otzaren ganera makurtu ta etzun nintzan. Loa, garestia zan beti lez. Amets astunak eta ariñak mustur jokoan, biotza taupada gogorretan

Barriro entzuten doguz oin otsak, bakea ezta loratu, eta atearen aurrean doguz saierreak txutxumtxu.

9grn. atearen zuloan sartu dabe giltza, idigi ta dei dagie, eztabe aurkitu gizon gaixoaren lorratzik. Non ete da ta nor ete dago? 10gn gurera datoz. Giltz eta morrolluak kirrizkatu dabez. Ikarazko dantzaketa dogu soin aulduetan, eta dei dagizkue irain eta gorrotozko arpegiak azaltzen dauskueza-la. Billaka ta aurkitu gurarik dabiltzazan morroskoaren izena emon bearrean, geureak eskatzen dauskuez bana-banaka.

Oraingoan be ezkara onein janari gozoaren arteko, eta agin zorrotzak zorrotzago eginik aldendu dira, gu, barriz, bular-auspoa aize barritu eta kuku loa egitera.

Beste bein, gabeko amarrak aldera, bakezko gaba zalakoan giñan. Oin otsak geroago ta urrerago entzuten genduzan, eta artezean eta zuzenean ona emen non datorren atera piti bat ardaututa egoan zori txarreko balarriandi, mukulutxoa besapean eta zer edo zer alde bakoitzetik idatzita zeukan ingorria eskuan ebela.


Mukulua etxekoak bialdua zan eta erritar batek ekarria. Orriaren alde batean nire izena eukan idatzita, bestean Santoñaraño etorri zan erritarrena.

Dardar-ikaraz eta barru-barrutik ixil-mixil mundu oneri agurka asiak giñan, aitatuta dodan mukulua-gaz etorri zana, barriz, orrian eukazan izenakaz asi zan.

Asi zan ba irakurten, baña, andaluzitar izkuntzaduna zalako atean geunkan gizon au, abizen euskaldun euskalduna zalako begiakaz ikusten ebana, txurrut eginda egoalako edo amaika izkidun izena zalako ezin eban uguzi. Jose Maria esaten eban bakoitzeko mingaiña koropiltzen jakon, "Iruarrizaga" ezin eban uguzi. Jose Marik gure artean ezegola esan neuntsonean orriaren beste alde ipiñi eban begipean, eta ni nintzan gizon arek bear ninduna, zorionez, baña, ezan izan oraingoa be azken-gaba.

Erakutsi eustan ba, espan artetik atera ezin eban berba. Erri batekoak eta ezaunak giñala autortu neutsan, eta besterik barik emon eustazan eskuetan eukazan emotekoak, Jose Marik, Santoñan eskuratu eutsozala esanez.

Jose Mari, Larrinaga-n egondako txapelgorria zan «Caballero de España» zan. Ate ta bide guztiak zabalik egozan beretzako, eta seme espetxeratuen gu-





raso atsekabetuak txapelgorri onegana joten eben senar, seme ta anei arreben barriak jakiteko. Ezin esan dot J. Mari onek ondo ta zeatz ala txarto ta meatz betetan zituan aginduak, ondo dakidana da ostera, polito orraztuten ebazala gure gurasoen sakelak, «berak bakarrik egin eikiazan mesede andiakaitik».

Iruarrizagak Arratiatik Santoñara, eta Santoñatik espetxera espetxe-zaiñak ekarri eustazan gauzatxoak, idatz-gaiak eta kebedarra izan ziran, eta autortu bearra dot, lenago ta geroago be ezkendua la erre bedar gozoagorik. Ke-zurrutadak orpoetarañoko bidea egiten eben. Bularrak txikiegi egin jatazan gura gendun beste arnasa iruntsiteko. A bai zala asetasuna ta nasaitasuna. Une labur bat lenago ludi oneri agur egiteko uste osoan gintzazanok, bedarrik gozoena erretan gagoz.

Argia

Lotarako orduagaz bat-batean argia amatetan euskuen, eta baratzetik zetorren epertargia lakoxe argi

erreñua izaten gendun laguntzat gaba baltzak uxatzeko.

Oitura onek be beti ezaban iraun, eta larritasuna gizendu ta egon eziña andiago egiteko, bi edo iru aldiz biztuten euskuezan. Eta jakiña ba, biztualdi bakoitza aginkada egiten zan osasunarentzat, eta amatau edo itzaltzen zanean berba oneik esaten genduzan 10gn gelan: «Onetsia izan bedi Jaunaren Seme Josu».

Ikurriña

Goizean goiz jasoten eben aga luzearen gorengo musturrena, illunabarrean jatsia izaten zan. Onetarako, guretar morroi batzueri dei egiten eutsoen ikurriña eskegiten eben tokira, besoa goratu ta «Arriba España» esan arazo.

Goiz batean, goizeko eginbear au betetan ebenen artean, bazan gudari giltzaperatu bat ustel itxurako zauri gordinez beteta. Min zorrotzak jaten eutson gorputza, bizi baño il gurago eban, eta «Viva ta Arriba España» esan bearrean, «Viva la Republi-



ca ta Gora Euzkadi Askatuta»z erantzun eutsoen. Eldu besotik, bultz emendik eta ostikadak andik gelaratu dabe bakarrik.

Biaramon goizean oiturari jarraituz, ikurriña goratu bear zan. Deitu dautsoe atzoko taldeari ikurrin-eskegi-tokira «Vivak eta Arribak esan arazoteko. Euskadi ta Errepublica goratu eban gaztea be emen dago ikurrin-agearen orpoan taldetik bakar-tuta eta tinko jarrita Patxi saguren izkilludun gudarai arpegia ta paparra erakutsirik.

Ikurriña agean gora doa aizearen aginduz igitu ta jolas eginik. Turutak ots dagio, oiartzunak aizea urrutuz igeska doaz. Gogo barik eta inderga jasota dagoz bero ta eskuak. Izkilluak zabaldu dabez ago baltzak, eta daunbada astunaren otsagaz batean jo dau betirako oinpean daukan lurra zauriz eta oñazez izan dan gazteak. Izkilluak ok egin dabe, utsitu dabe sabelean izan daben edena. Utsitu dabe, baita, gizonaren soñean arnasa ta bizia. Il dabe (G.B.).

Berunbil-koskorak bulartegi bat geiago zulotu dabe, gazte zauriduna lurrera egotzi izan da, lurra gorritu da odolez eta aizean egazka doa odol-lurruna. 61gn izan da.

Janaria

Aurrerago be zerbait aitatu dodan arren, argi pitin bat geiago emoteagaitik eztoz uste begiak naskatuteko izango dala ta, aurrera egiten noa.

Gosaritzat akeita deitzen geuntzan salda ilun-baltzizka kikara baten neurrian, au ezbazan, txoleta koxkor txiki ta urrian.

Eguerdian txoleteko aragi ta indaba umatuak. Lagun batentzako egiñak ziran txolet-janariak laurentzan emoten euskuezan eguerdirako ta aparia egiteko txakur biko ogiagaz lagunduta.

Jan barik biziten ikasteko bide zuzen onegaz azpeltu gintzazan eta, erabagi barria asmau gendun, egunean batek edo bik egin sabelkada, besteak begiratu ta itxaron txanda etorriko jaken arte. Baña nor izango zan bizirik iraungo al ebana iru edo lau egunean barau osoa eginez? Eziñekoa zan. Eguneroko janari urriagaz gosez ta albo-alboka larrian zutik egon ezin-ta bizi ziran azalpeko azurrak zelan iraun eikian bizirik txanda etorri arte? Ez, ezin gendun egin olakorik, ikasi zarragaz jokatu bear zan, periko txiz-ontzian epeldu ura (zenbat eta ugariago obeto), umeak amaren titia bazen maite gen-

duzan jatekoakaz naste-borraste egin ta jan edo edan, bein beratuta, bein gordin-epelduta.

Tilliztak (lentejak)

Tillizta apariak be izan genduzan. Eta bein, errikide, auzokide ta umetatik adiskide ta ezegun giñan Fernando Eguileorrek aterik ate emoteko ekarren ontzi zabal sakonetik goiko ertzeraño bete eustan aurrean jarri neuntson txoleta, ta, a zan jatea kotoxakaz arduratu barik. Ondoko lagunak Aitaren eta Semearen egiteko aldi laburrean iruntsi eben bakoitzak berea, ta zearka ta bekaitzez begira diarduen nire jatera gogotsuari. Ba nenkian txarto ta narrugogorkeria zala nire jokoa, ez emotea niretik lagun goseari. Gosez ta lotsaz, arpegieta begiraturteko kemen barik amaitu neban txoletekoa, lotsagabekeria egin neban, gosea zan nire agintari.

Azkarate ta Azpiazu

Gizon bi oneik adin andiko ta goi-mallako militarak ziran, lenengoa erriojatarra, bigarrena Bizkitarra ete zan nago. Neurri txikerreko aparia izan arren, ezeben jaten artzen eben erdirik be. Ni bizi nintzan atearen aurretik igaro bear izaten ziran ontzia gar-

bitzera, eta eizariak erbiari legez itxoiten neuntsoen atearen aurrean azpilean zekarzen xaborra-onda-kiñakaz nire ontzia bete ta bigarren aparia egiteko. Beraz, tillizta aparia izaten gendun egunetan, nire eztegu eguna izatea zala esanbearra dot.

Apaizak eta jaupa (meza)

Ba-genduzan arteko, gudari zaurituai azken-arnasa larrian laguntzeko mendirik-mendi ibili ziran abadeak. Baña katoliko, apostoliko españarrakaz abadetza egiteko eskubiderik ezeuken. Españarren Españako aita santu españatarren baimenduna etortzen jakun jaupa edo meza esatera.

Mezak ez ziran esaten igandero. Agintarien gogozko egunetan izaten ziran eta onetarako eguna etortzen zanean, nai edo nai ez, guztiontzat izaten zan, sinismendun eta sinismen bakoentzat. Gure jauntxoentzat bardin zan txerrenari otoi egin naiz Goiko Jaunan biraukaekin. Francoren katoliku-lege barriaren itxarkundia zan.

Bein, kanpoko apaizak meza esaten eben artean, etxeokak, barrukoak agurtza otoi eban meza emollearen ondotik, entzuleen erantzuna artzen ebala. Amaieran Aita gurea esan zan gure lagun ildakoen



alde. An izan genduzan nagusi jauntxoak belarri onez ezeben entzun gure ildakoen alde esan zan otoia. Eta guztia amaitutakoan abade otoilari ga-xoak nagusien aurrera aurkeztu bear izan eban, eta tinko jarririk bereak eta bost entzun zituan.

Modako katoliku barrien arteko eleiz-arauak ezeben ontzat artzen gudari ildakoen aldezko otoitzik. Esan eta aitaturako Aitagure bakarragaz amaitu ziran agiriko otoi egiteak.

Beste arlo bat

Gorrotoaren egoak zabalagotuten diardue il, eta bizirik eskegi ezean, eztakie zer asmatu narrua eratziteko, eta etxetik bialtzen dauskuezan soñeko garbien tartean datozen ogi-koskorak kentzea be ondo deritzaie.

Iruen bat illabete emon genduzan era onetan, arantzatik atara ta otatik arantzara, zeñien estenkadak zorrotzagoak ziran ezgenkiela.

Egun birik baten urtetan gintzazan ormartean zan baratzera zorriai astinaldia emotera. Eta bein, barrurantzakoa egitean, sarrera ezebala egin bera zan lez ta, narrua illundu eutsoen galizair gazte bateri. Geroago, Bilbora ekarri ginduezanean, Derion il eben.


Aldakuntza

Azillaren 22gn da. Nonbaiterako bidean jarri gaitue. Non, noiz eta zelan amaituko dogun eztakigu. Santoñako itxas-ertzean gagoz izkillu ta begitarte illundu gizonez esituta. Len lurreko arren bildur giñanok, arrañen janari biurtuko ete garan bildur rak jota gagoz.

Era onetan gagozala emakume bi urreratu dira nire ondoan zan lagunaregana norako bidea artzera doan jakin gurarik. Gure erantzuna artzeko eztabe astirik, arranpalo antzerako begirakada ta ezpanganeko bixar zitaldun txankerrak uxatu dauz purrustadaka agobaltzkeri oneik esanez; «Aldendu zaiteze ama ezkongaien alabok, ezpabere, lurrera eratziko dautzuedaz makillaka okorpeko bularrok». Lau iturri sortu ziran lau begietatik, eta aldendu ziran zotinka eskuakaz arpegiak estaldurik.

Ontzira

Eldu da ordua. Uraren ganean kulunka nagian eta diardun: «Serna» izeneko ontzirako bidea artu dogu. 500 baño geiago gara eriotzaren ezaugarria arpegian erakusten dogunak. Ontziaren sabel sakoneraño jatsi gara, eta zelan edo alan, bakoitza al dauan eran, eperdi bete toki egin dogu.



Itxasoa bare dago. Ezin dogu igarri geldirik gagozan ala ibilien guazen. Alako baten, aizea sartzeko goian dogun zulotik nun ikusten dogun, Deustoko zubiaren besoa, ongi etorria emoten lez gora jasota.

Eriotzako orduan ezta aukeratzen toki alai, pozezko ta berezirik, guztia ikusten da ilun. Baña, arrotz-errian baten iltea baño obe da birritan il norbere egiazko aberri maitean, eta, poz apur bategaz jantzi giñan.

Bilbon

Bilbon gagoz. Eguzkia eguneroko ekiñean nekatuta, indar barriaren billa bideak egin dauz, juan da, ezta agiri.

Bilboko ibai ertzean asi, ta Zabalbidetako aldapan gora andrazkoak geiago dira gizonezkoak baño, eta askoren artean negartiak be ez tira gitxi. Bakoi-tzak daki negarrari leku emotearen zio. Emen datoz ba seme, senar, senargai, neba ta anai gosez arpegi maskalduan begiak sakonduta, belarriearaño zorri aginkadaz urratuta.

Larrinaga

Oraindik argi dago, illunabarra generatuten dator bizileku barrian gagoz, ormarte illuna, goibela ta zikiña, baña etxetik urrago gagoz, aberrian, poz barriaren jabe gara.

Bein bere geiagotan ez nebazala ikusiko uste nebazan errikide maiteak besarkatzeko zoria izan dot.

Izentatu dauskuez txarri-tokiak eta barrura goaz gaba emotera, olloen lotarako ordua da eta 45 gara toki baten eta alkarren ganean egongo garanok.

Bart gabeko aparti-legea egin gendun ezkerre gure agin eta ortzak eztabe lanik izan, eta, au poza! saguak agoan erabilitako ogi-koskorak aurkitu dodaz baraua austeko.

Igazi dan gabak egun barriari leku egin dautso, eta atzo besarkatu enebazan erritarrak besarkatu dodaz lenengo orduan.

Iru illabeteko bixar kirru balzagaz nago. Urkiolako deun doatsuari ikertaldia egin barik kentzerik eztoz gura, baña alperrik da, laster baten zuritu daustez bera ta bixarleku.

Ogi-gosez ta barri-egarriz etorri nintzan eta asetua izan naz, batez bere barri txarrez. T. Atutxa, errikidea, abertzalea zintzoa, seme-alaba guztien aitu, erritar lupu-bioz aunakaitik illa izan dala diñauste. Areatzako M. Larrinoa, ta Dimako Atutxak ordain eta bide berdiña izan dabe, Arteagako Abaskalegaz beste orrenbeste.

Azkengo

Dueson baño azkatasun nasaiagoa dogu. Goizetik gaberarteko orduak alkarregaz emoten doguz txutxu-mutxuka, ta ames gozo-garratzakaz orea egiten, azkataun eguna ta Derio gogotik galdu barik.

Geu gara geure burua poztuten doguna. Geu gara illuntzeagaz batera geure buru nekatutean dogune egunerako lor garratzagaz betiko itaunak kolkoari egin; «ikusiko ete dogu bigerko eguna? atzeneko gaba izango ete dogu? zenbat izango gara? t. a.

Ispar onak

P. Solagurennek eta J. Ormatxek – Durangotarrak, Sukarrieta ta Ibaizabal gudataldeen buruak deia izan dabe. Gelakide doguz. Gaba da, eta ordu ontanko deia zertaz izan leiteken «suspertu ezin da doaz, bata bestearen atzetik izerdi larriak argi egiten dautsoela bekokietan. Besteak barriz, agozabal ta belaun-ikaraz arnasa artzeko kemen barik gelditu gara.

Emen azaltzen dodana gabonillaren 10gn gabeen jazoa da, eta aurreko egunetatik etorran lez zurrumurrua gudari gorri ta baltzen arteko trukea egiteko artu-emonetan ari zirala zenbat amets sortuko ziran gure gogoetan zeruko Altsuak bakarrik esan leikena da.

Ametsak, pozak, esate itun eta itxaropentsuakaz gogozan artean, emen datorkuz lentxoago deituak izan dira, biak Durangotarrak, arpegia poz-ikurri eta eskuak igurtzika. Españarren eskuetatik Españan leporatu eben eriotz-epaia arindu dautsue. Azkatuak izan dira zigor orretatik, eta bizialdi guztirako katepeko egin dira, otsein eta doakabe.

(Jarraituko da)

Lourdes eta Paulo´ren Urrezko ezteguak

Eta txangolaritasunezko – saria

1963 – 2013

Praga, Budapest ta Biena´tik zear I.



Urrezko ezteguak.

Bizi garan denborak oso traketskeri, edo oraiñar-teko sendi-oituratan gauzak asko aldatu direlako, zalantza asko euki genduzan Lourdes´ek eta nik urrezko ezteguetara eltzen gagozela, egun orren ospakizun gora-beran.

Len, aolku billa egin genduzan itaunetatik, *erantzunak zalantzazkoak izan zirelako, ta bigarren, gagozan larritasunezko denboratan, senide batzuen murmurretik, ez ziralako ospakizunaren denborak entzuten gendulako.*

Anka sartzea izatekotan, goraiño sartzea erabagi gendun, bion aldeko gogoak, etxeakoak edo bion sendiak batzea gura gendulako, eta ori erabagi gendun, egun ori al gendun mailla aundienean ospatzeko.

Sei-illabete ariñago, anai-arreba bakoitxari ezteidei´ezko bidai-txartel bat bialtzea erabagi gendun, aurreko orrialdian Karmengo Ama Birjiñaren irudi ederra eleizaren gaiñean dala, bertan egun orren egitarauzko zeregiñakaz:

Dei egiten dautsuegu, karmeldar San Juan Bautistaren eleizan alkartzera, karmeldarrak emongo daben Meza Santua´gaz batera, Lourdes eta Paulo´ren Urrezko eztei-eguna ospatu daigun, eguerdiko 12´etan.

Eguerdiren 12´etako Meza Santuan, Lourdes eta Paulo´ren ezkon berrizte ondoren, arratsaldeko ordu-bietan Larrea´tik, Santimamiñeko "LEZIKA" jatetxean danok alkartuta bazkari eder bat ospatuko dogu.

Bigarren eta irugarren orri aldeetan, Lezika´ko jatetxe ederra bazkariaren jaki-zerrenda eroaten eballa, eta laugarren orri aldean, 24 eta 23 urte euki ebazaneko Lourdes eta Paulo´ren argazki ederra-gaz ornituta.



Lourdes´ek, eskuz emon ebazan deiezko txartel orreik, danori esanda, dei orrek ez ebela ezartzen ordeko premiñarik, guk zeozer egiterakoan, gure sendia batzeko alegiñean egiten gendulako.

Erantzun ederra euki eban gure Urrezko ezteguaren deiak, eta zoragarritzko egunagaz ospatu gendun alaitasunezko bakean, anaitarte edo anaikidego egun ori.

Oar txiki bat emen.

Arritzekoa da, aolku billa nire aldetik, artu nebazan ezezko edo zalantzazko erantzunak artzea, sendi-buruz gaur egunean ain garrantzi aundikoa izanda, bikote gazte baten lenengo ta betiko eskeintzari ondo erantzunduta, euren bizi guztia senide lez bizi iza-tegaitik.

Eta ez euren artean ez diralako egon arazorik, gure arteko arazoak izakera buruz, gogorrek eta aundiak izan diralako ekanduzko bizi-aldakor onetan.

Baiña, ez gaindu eziñezkoak, eta gitxiago *Jainkoa ta sendia elburu lez eukin ezkerro, gazterik benetan emoneko ezkeintzagaz lotuta.*

Orregaitik nire aldeko aolkua, urrezko edo gure gizarteko edozein garaipenaren aurrean, ospakizunaren aldekoa da, ordezkari-tazko bizi-gogor onetan, eta gure menperatutako Euskal-erri onetan geiago, alaitasunezko egunak bear doguzelako, ainbeste negargarri-zko egunen aurrean.

Gure euskal ordezkari-tazko ekintzak, zentzunezko edo ganorazko ausardia bear dabe, sendi ta erriaren adiskidetasunak ekanduzko orekan iraun dagien, *ta ze obe: ospakizunezko garaipen orreik, neurri onenean omendatuta baiño.*

Txangolaritza.

Lourdes arduratu zan txangolaritzaren bidai guztiagaz Eroski-bidaiaren trabelplan´en arduradunekaz berba eginda.

Eta gure ametsezko gogoak Europako ekialdea ikustea zalako, Praga, Budapest eta Biena ikustea aukeratu gendun.

Eguneko ibilaldiak aurketu orduko baiña, lurralde ta erri onein edestia labur bat azalduko dautsuet, jakin degun eskualde onetatik zelako zentzuaz ibili giñan.

Praga´ren edesti laburra.

Praga lenago, Boemia´ko erregetzaren eta Txekoslobakiaren Uri nagusia izan zan, gaur Txekiako errepublikakoarena dana.

Moldaba´ko ibai bazterrean kokatuta, 1.262.106 biztanle daukaz, eta beren erri-buruaren inguruak 1.900.000 biztanle.

1.992ko urtetik, Izadiaren-Ondarezkoa⁽¹⁾ izanda, mundu onek daukazan ikusle geiagoko 20 Uri nagusien artean dago.

Edestia.

Pragaren izena, txekiako Prahy itzatic datorrena da, *ur-lasterraren* esaguragaz, eta Paleolitikotik datorren giza-ezarpena da.

K.a.VI gizalditik aurrera keltiarrekaz esan leike daukola erri-ezarpena, auek Praga´ren ego-aldean kokatu ziranean.

(1) Izadiaren-Ondarezkoa = patrimonio de la Humanidad.





Lenengo leiñuak Zàbist´en izena euki eben, germaniako erri bategaitik aldatu zana, eta gero eslaboagaitik, auek be aldikada baten, Abaroagaitik menperatuta egon zirenak.

K.o.IXn gizaldiko azken zatian irasi zan Pragako Uria, Moldabako ibai bazterreko eskoi aldean Libuse´k, Jauregi edo beren gaztelua eraiki ebenean, eta Pemysl gazteagaz ezkondu, Premyslida`ren leiñua sortarazi zan.

Gaztelu au Vysehrad´eko izenagaz esagutzen da, eta ez da gaurko Pragaren gaztelua, oraingoa ibaiaren bestaldean eraiki zalako.

Praga, laster egin zan Boemiako erregearen ezar-lekua, errege batzuk Erromatar-kaisar Sakratuzkoaren agintari nagusiak izanda.

XIIIIn gizaldian IIIn Otakar erregeak, Malà Strana´ko⁽¹⁾ aldea irasi eban ibaiaren bestaldean.

XIVn gizaldian eta IVn Karlos´en eskutik goraldtu zan Praga, ibaiaren bestaldean Uri barria irasi ebenean, eta Moldabako ibaiaren albo bietako Uri-erdi bi orreik, XIIIn gizaldian eginda eta 1.342ko urtean uolde aundi batzuk bota eben zuba, IVn Karlos´ek 1.357ko urtean 516 metroko luzeran, 10m zabalean eta iru dorreagaitik babestuta, 30 giz-irudi ta 16 arkuekaz eraiki eben zubi ederragaz alkartu ebanzanetik, ta Uri erdi bi orreik alkartzeko eginkizunagaz, Europaren erdi aldeko leen Ikastetxe Nagusia egiteko aukeratu eutsoen.

IVn Karlos´ek, zubi ederrori babesteko iru dorretik bi, Malà Stranan kokatu ebazan, bestea, Uri zarrean, ta bertan dago XVn gizaldian egin zan Europako izar-erloju zaarrena.

1.424ko urtean Jan Hus eta Sejismundo erregeen artean egon ziran erlijio ta politikaren eztaibada bidez, Husitas´en gudak sortu ziran eta onen eskuetan geratu zan Praga.

Aro-Barriko denboran.

1.526ko urtean, Habsburgotarren agindutara menderatu zan lurralde ori, eta Praga Austriako lurralde baten Uri nagusia izatera aldatu zan.

XVIIIn gizaldian eta Boemiako agintaritzta, espainako I Karlos´en anaia IIIn Fernando katolikoaren eskuetan ezarri zanean, amorraldi aundiak sortu ziran Boemiako ukalari⁽²⁾ andikien artean.



Eta IIIn Fernandok beren Pragako agertzea antolatzen asi zanean, zinegotzi bi bialdu ebazan Praga´ra beren asmo edo aginduak onartu degiezen, eta bertokoak zinegotzi bi orreik kokotetik oratuta, gazteluaren leiotik bota ebezan, **Pragako leiotik-kanpora botatea**⁽³⁾ deituko zana.

Arazo guzti oneik 30 urteko gudakaz amaitu ziran, **Alemaniko lurraldeak ez ebelako gure inungo menpetasunik**⁽⁴⁾, nai germaniako kaisertzaren menpean egonda-be.

1.741ko urtean, Frantzez ta Babaro´en artean artu eben Praga.

1.848ko urtean Austriakoak bonbakatu eben.

(1) Malà Strana = alde-txikerra esangura dauana. (2) Ukalari = protestante. (3) Leiotik kanpora botatea = defenestrar, o a lo que se denominò como defenes-traciòn de Praga. (4) Alemaniako lurraldeal = betiko edo ta gaurko Landerranak diranak.



XVIII In gizaldietan eta XIX garreneko erdietan, diruaren arloetan asko goraldtu zan Praga 'ko Uria, ta orren ondorioz Europako an-dizki, salerosle ta merkataria asko agertuta, eleiz eta jauregi askore-kin ornitu zan, orduan agertu zan oker gunezko⁽¹⁾ egikeraren irudi azko-ko itxura ederrean.

XIX In gizaldian eta austro-ungariaren menpekotasunean, Praga, Txekiaren aberritasunezko erdi toki lez agertu zan, eta dirdaitu agertu jakozan, jendekuntzaren buruzko lanetan ugaritu ebezan ekintzak, *Aberritasunezko Erakustoki, Laterrizko Antzerki ta Rudol finun jauregiakaz.*

XX In gizaldian, Sobiet 'en agintaritza eta gaurko denbora.

1.918 'ko urtean eta Munduko I 'go gudaren ondorioz, Txekoslo-bakiaren Lateria irasi zan eta Praga laterri orren Uri Nagusi lez ezarri eban, Masaryk 'tar Tomas euken lenengo agintariagaz.

1.939-1.945 urte bitartean Hitlerrek menperatu eban Praga, ta eukezan judoetatik geienak il eta besteak, atxilotuaren biltzezko-landa zarratuetara bialtzen ebazan berton iltzeko.

1.945eko urtean, amerikar Laterri Batuetako guda-egazkiñak, Dresde zalakoan nastuta edo artu ebalako, bonbakatu eben txe-kiarren asarreak zirikatuta, eta egun batzuk barru errusitarrak Uria askatu ondoren, txekiarrak mendekuz, aleman batzuk il ebezan.

1.945 urtean Loraillaren 5ean Munduko bigarren guda-nagusia amai-tzen egoala alemanak, gudaren Eritegizko Uria izendatu eben Praga.

Munduko bigarren guda ostean, komunismoaren legepera aldatu zan Txekiako errepublika, ia 20 urte ingurutan.

1.968ko urtean Epailaren 30ean eta Nobotny lendakaria il zan ostetik, komunistak bialdutako gudalozteakaz ezereztu eben *Praga-ko-Udabarriaren izenagaz* agertu zan taldea, Sobiet 'tarrak Komunismoaren gizartekerizko gelditasuna bizkortu gure ebelako.

1.968 urteko Abenduan, orduo Sobiet-Alkartasuneko buru izan zan Mijaíl Gorbaxov 'ek *Sinatra 'ren Irakaspidetza*⁽²⁾ argitaratuz, Breznieb 'en irakaspidetza ezereztu eban, eta Europaren Ekialde-ko erri orreik euki eben nortasunagaz, jaurkintzazko eritziaren ze-regiñetan, eurak geien gura ebena egiteko geratu ziran.

1.989ko urtearen askenetan Berliñeko ormea bota ebenean, Pra-gako errigizarteak *sozialismu edo gizartekeriaren irakaspidetzatik* aldendu ziran.

Eta Praga izan zan Komunismoaren maldaberarako, Uleguriko Iraultzaren⁽³⁾ zilborra.

Atutxa 'tar Paul
Zornotza 'n 2.013 'an Abendua 'ren 11 'n
(Jarraituko da)

(1) Oker-gunezko irudi azkoren itxura ederrean = estilo barroko. (2) Sinatra 'ren Ira-kaspidetza = Doctrina Sinatra. (3) Uleguriko-Iraultza = Revolucìon de Tercipelo.



IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XI.



2. Erromatarren sarrera.

Bigarren zatian ikusi dogu, zelan Sumerian jendekuntzazko jakintza sendotzen joan zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizar barriak, egoan jakitzazko jendekuntza, bereganatu egiten ebala, eta berakadarik ez edin egon Grezia ta Mauritarrek egin eben antzera, aurreko Demokraziaren bide zar oituran aleginduta, edertu egin ebela, azturazko jakin egarriak ordezkutzen joan ziralako.

Ez zan gertatu bardiñ Erromatarrekaz gero ikusiko dogun lez, oneik asierazko errepublika on bateko jaurkintzatik⁽¹⁾, oso osoan, amaitu ezin dan sasi norkeriaren leize zuloan jausi ziralako.


Eta euren maldaberan indartzeko, beste batzuen erlijiozko eritziakin alkartuta, gaur lokatzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

3. Etruskoak, Latiñaren jaiotza eta Erromatarrek.

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia K.a. 753tik 510era egin eben, Sabino ta Iszeresakaz alkartuta.

Etruskoen jakintza aundian, Latiña sortzeko len asmakizuna, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibilgaillua izateko egin ebela.

(1)Nai ta neurri aundi baten jaurkintzazko asmakuntz onekin eginda be, menpekotasunezkoa izan zalako.



Eta Griegoaren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti arauzko izkuntz aundi bat biurtuta geratu zan, gure gaurko egunerarte.

Erromako Iria, Romulo irasi ebala K.a. 753-716 urte bitartetan esaten dabe, eta urrengo 715an Ponpiliotar Numak Erromako erregetza artu eta beste sei errege iraun ondoren, 510ean Tarkinotar Luzio arroputz deritxonagaz amaitu zan lenengo ekitaldi au, arrezkeroztik errepublikako jaurkintzara aldatuta.

Etruskoak lenengoetan oso jarduntsu⁽¹⁾ ibili ziran, askatasuneko asmakizun orreri zentzunezko itxura emon naian, eta Griegoen izkitegia artuta, euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latiñezko iztegia lortu arte. Gero mundu osoan zabaldu ebena.

K.a.509an Erromatarrek, Etruskoen gurasordetik askatu ziranean eta Errepublikaren jaurkintza sortu, urtero aukeratzen eben lege gizon bien aginduan ezarri ziran. Pretorak ziran auek, gero kontzul deituko ziranak, eta euren jaurkintzazko ekintza, lengo erregeak egiten eban antzekoa zan.

Errepublikako lenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak senatore batzaretan batuta, izan ziran Uriaren jaurkintzan agindu leikenak, jabe bide ori, bizi guztirako izaten zana.

K.a. 240 urte ingurutan asi ziran erromatarren arazoak, erriaren bemaillako sendi oso aberats batzuk, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko, erri gurasoen⁽²⁾ sendiakaz alkartu ziranean.

(1) Jarduntsu = atareados. (2) Erri gurasoen = patricios.

Ekintza orren ereduz jaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andi mandakeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin beste, euren arbasoak goimaillan lortu ebezan oiturazko ekanduak, neurri aundi baten galduta.

Eta ondorio orren bidez, berezko baserritarrak aienatu ziran, lur zabaleko etxagunak, mendeko joputasunean⁽¹⁾ agertu ziralako.

K.a.106an Erroma, Kaiotar Mario eta K.a. 27ko urtean Oktabiotar Augustorekin, gudaloztearen indarrezko antolamenduan izen aundia artuta, kaizergotzan edo aginzalekerizko jaurkintzan ezarri zan.

K.o.306an I Konstatinok Erromako kaizertzara igon ebanean ta euren asmakisunezko elburuak indarra galtzen asi zirala ikusi ondoren, orduko denboran ekandu arloan berrikuntza andia ekarten ebana eta eten bako ekiñaldian indartuz gorantz joan ziran Kristau indarrak alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun egien.


Eta orduko denboran eriotzeraiño eizatu ta aizatuta⁽²⁾ egon ziran kristau eritziko gizarteak, Galenok 311n Sardikako legearen bidez, Kristau jai arauak askatzeko eskatuta eta Konstantinok 313an Milaneko agindua emonda, Baleriok baieztuta askatu ebazan.

324an, I Konstantino geratu zan erromatarren mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar lez.

325ean, I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak Nizeako eleiz batzarra ospatzea agindu eben, eta katolikotasunezko izen barriagaz antolatuta, oralkartu eben erromatar kaizertza eta Kristau ekanduzko barriaren eritziak, munduko gizasemeak kaizar eta Aita Santuaren aginpean iraun egian.

337an gertatu zan I Konstantinoren eriotza, ostean erritarren gudak sortuaz.

II Konstantino⁽³⁾ guda orreitan garaipenduta, 351an kaizar aulkira igon eban eta Mendebal ta Ekialdeko kaizertzak bateratu ebazan.



(1) Mendeko joputasunean = esclavismo. (2) Eizatu ta aizatuta = acosar, acorralar y darles caza hasta la muerte. (3) 331-363.



Eta 363an Flabio ta Klaudiotar Juliano, ziñ ukatzaille⁽¹⁾ deritxona ezarri zan kaizar aulkian, 364an Persak menperatuta.

Eta Mendebaleko Erromatarren kaizargotzan azken ezarri zana 384? 395-423rarte Flabiotar Onorio izan zan. Nai Erromatar Ekialdeko kaizargotza⁽²⁾ 1453ko urterarte iraun, areik eta Turkoakaitik menperatuta geratu arte.

Eta 423an erromatarren Mendebaleko kaizertza jausi zanetik, Erromari emoten jako asiera, Aita Santuaren bizi leku eta kristau katolikotasunezko zilborra izan edin, Europaren aolkulari nagusi lez geratuta.

Emendik aurrera eta Erroma saskildu ondoren, 410ean I Alarikogaz asita, Godoak sartzen dira kaizargotzaren jokoan.

4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

Kristautasuna katoliko alderdikidetu zanetik ona ezartzen dira okerrezo erabagi aundiak, edestian zear etenbako goraldian ziñeskintza arauz gogortzen joan zirenak, eta oraindiño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko errigizarte ta izkuntzaren eskubideai ainbeste kalte egiten dautsezan norke riaren guzurrezko arrazoikeri orreik.

4.1. Konstantinok 325n urtean eta bere agindupean.

I San Silbestre Aita Santuak ,Kordobako Osio gotzaiña⁽³⁾ bere ordez joan zedin deituta ta beragaz Bito ta Bizente apaizak joan da, 325ean Nizeako I Eleiz Batzar Nagusia batu zan.

(1)Ziñ ukatzail= apostata,renegado. (2) Bizanzioko kaizertzari deritxona. (3) Osio Gotzaiña, 257an ? Kordoban jaio eta 357an Panoniako Sirmionen il zana. Kordobako Gotzaiña eta Konstantinoren aolkulari zana Arrianismoa bastartu dagian eta Nize-ara Aita Santu I San Silbestre ordez joan zana Bito ta Bizente apaizaren laguntzan.

Bertan Arrianoren irakaspidetza baztartuz eta Zesareako⁽⁴⁾ Eusebiok siñesteko idatzi eban Kredoa on artuta, katolikotasunezko eritzi barri au auke-ratu zan.

Ekitaldi au, ez dogu galdu bear gure ikusmenetik, gero Godoen VIIn gizaldian Toledoko eleiz batzar nagusian eta XVIgarrenean, errege katolikoarekin zer gertatu zana jakiteko.

Konstantinok urrengo urtean: Izadi oneitan Jainkoa eta Mundu onen giza bitartean ordezkari le-geak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide bakarrak⁽⁵⁾, Kaizertza eta Eleizaren Aita San-tuengan egon zedin jabetasuna erabagi eban.

Eta ortik aurrera, euren batzangotasunezko agindupean Munduko gizarte guztia eritzi orreitan sartu naian, asi ziran arrokeri aundiz ziñeskintzazko agindu gogorraz⁽⁶⁾, Jainkoak gaiari ipinitako Berezko lege guztiak naastu-ten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asiera-tik eta ariñago Zesar Augustorekin batez be, Mundu onetan erregetza bakarra egiteko as-makuntza indartu zan, Eleizari aolkularitzazko eskubide osoak emonda.

Atutxa'tar Paul


Zornotza'n 2013an Urtarrillaren 15ean




(4) Cesarea. (5) Solaskide bakarrak=ñi-cos interlocutores válidos entre Dios y los hombres. (6) Maixukerizko Dogma arauz = dogmaticamente. Batzangotu baiño, dana banandu ez ebena baiño besterik egin

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



IPUIN SARIKETA

IRABAZLEEN IZENAK

1. Saria: Arantza LENIZ
2. Saria: Palmi MERINO
3. Saria: Juan Manuel ETXEBARRIA
4. Saria: Asier LEGARRETA
5. Saria: Franzisko HIERRO

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.



**Urte barri karri
txarri belarri
dekonak eztekonari
nik eztekot eta niri.**

**Emen gatoz lau
kanpai joten bi
emoizu limosnia
Jangoikoagaitik.**